

1. Balio proposamena

Hainbat eta hainbat gazte, gazte-bidaietara joaten dira urtero baina hau antolatzeko orduan hainbat arazo sortzen dira. Guraso askok ez dakite beraien seme-alabak ze baldintzekin, monitoreekin etab doazen beraien ikasbidaietara eta honekin hainbat zalantza izaten dituzte. Azken finean, beraien seme-alabak (orokorrean adin txikikoak) ikasbidaia egitera joaten direnean, beste herrialde batzuetara joaten dira, inor ezagutzen ez duten toki batera.



Horregatik gure enpresan gurasoekin harreman estu bat izaten saiatzen gara, beraiekin bilerak egiten eta momentu oro kontaktu estua izaten. Bilera hauetan, bidaiarekin zerikusia duen guztia azaltzen diegu eta ondoren, beraiek dituzten zalantzak argitzeko, galderak egiteko tarte bat eskaintzen diegu.

Baina gurasoez gain, bidaiara doazen ikasleek ere beraien kezka izaten dituzte. Normalean, ikasleentzako ere atzerrira bidaiatzen duten lehen aldia izaten da, gurasorik gabe..., horregatik ikasleek ere hainbat zalantza izaten dituzte eta beraien zalantzak argitzeko beste bilera bat egin ohi dugu.

Ikasbidaia planifikatzeko orduan sortzen diren arazoei irtenbidea ematen saiatzen gara, behar horiek modu eraginkorrean asetuz.

Guk eskaintzen dugun zerbitzuaren barruan:

- Atzerrira bidaiatzen dutenen seguru medikoa sartzen da.
- Garraioa (hegazkina eta autobusa), otorduak eta jarduerak guztiak koordinatzen ditugu.
- Helmugan egin dezaketen ororen inguruan, zein txango egin ditzaketen, zer gauza bisitatu ahal duten...

Helburua bezeroek inolako kezkarik izan ez dezaten bidaia osoan.

Gure enpresak bezeroei eskaintzen dizkien zerbitzu guzti hauek balio kualitatiboak eta kuantitatiboak gehitzen dizkie. Balio kuantitatiboari dagokionez, ikasbidai bakoitzak prezio desberdin bat izango du. Prezio hau, eskaintzen ditugun zerbitzuen arabera, egingo dituzten jardueren arabera eta bidaiaren helmugaren arabera zehazten dugu besteak beste. Baina, ahalik eta prezio ajustatuenak jartzen saiatuko gara, diru gehiegi ez duten horiek ere bidaiara etortzeko aukera izateko eta, gainera, epeka ordaintzeko aukera ere edukiko dute. Balio kualitatiboari dagokionez, bezeroa gure zerbitzuen kalitatea izango da.

Amaitzeko, lehiakideetatik bezeroei eskaintzen diegun arretak, zerbitzu pertsonalizatuak eta arriskuen murrizketak bereizten gaitu.